



KOSTU EGITURA

Gure proiektua gauzatu baino lehen ezinbestekoa da gure kostuak zeintzuk eta zein motatakoak, hau da, aldakorrak ala finkoak diren identifikatzea. Kostu finkoak beti berdinak direnak dira, hau da, gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti berdina ordaindu behar direnak. Kostu aldakorrak aldiz, enpresaren jarduera-mailaren arabera edo ekoizpenaren arabera aldatuz doazten kostuak dira. Gure kostuak zein motatakoak izango diren jakiteko, zeintzuk izango diren jakin behar dugu.

Hasteko, gure enpresaren kostu finkoei dagokienez hiru izango dira: langileen soldatak, pilula zatitzaileak egiteko makinak eta gure enpresa sortuko dugun fabrikaren alokairua. Langileen soldatak langile bakoitzaren arabera izango dira, hau da, langile guztiek ez dute berdina irabaziko, soldata egiten duten lanaren arabera izango da. Fabrikaren alokairua finkoa izango delakoan gaude gure eskuetan ez dagoen ezaugarri bat delako.

Kostu aldakorrei dagokienez, ordea, nahiko zaila da guztiak identifikatzea, oraindik ez baikara hasi produktuak ekoizten. Dena den, zatitzaile pilula bakoitzerako erabiliko ditugun materialak aldakorrak izango dira, produktu bakoitzak bereak beharko baititu. Gainera, produktuen enbalajea ere mota honetako kostu bat izango da, produktu bakoitzak bere enbalajea duelako, eta egiten ditugun produktu guztien arabera, gehiago edo gutxiago enbalatuko dira, materialekin bezala.

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
Biltegiaren alokairua	200€/hilabetean
Soldata (langileak)	Langilearen arabera
Garraio enpresa	2.500€/hilabetean
WiFi	60€/hilabetean



KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
Materiala	3.000€ / hilabetean
Produktuen enbalajea	2€ / enbalageko

Eskala-ekonomikoa enpresa batek ekoizpen-kostu txikiagoan produktu gehiago ekoizteko duen gaitasuna da; izan ere, enpresa bateko ekoizpena hazi ahala, kostuak murriztu egiten dira. Gure enpresari dagokioenean, gure eskala-ekonomia egonkorra eta eraginkorra izatea espero dugu, ahalik eta produktu gehien ekoitzi ahal izateko ahalik eta kostu minimoekin.

Laburtuz, kostu horiek guztiak kontutan hartuta, argi dago gure proiektuak aurrera egiteko langile eta baliabide ugari beharko dituela. Baina, gure diru-sarrerak kostuak baino handiagoak izango direnez, gastatu beharko dugun diruaz ez gara kezkatzen. Gure proiektuak espero dugun arrakasta izaten badu, irabaziak handiak izango direlakoan gaude.